



www.berastegi.eus

UDAL FUNTZIONAMENDUA

1. Kultur solairuaren inaugurazioa: Maiatzaren 20an egin zen, bezperan eskolako ume eta irakasleen bisita jaso ondoren. Eguerdian Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan genituen ekitaldi ofizialean, eta herritarrekin eta herritarrentzat 19,00an ireki zen solairua.

Batukada taldeak eman zion hasiera arratsaldeko ekitaldiari, eta ondoren antzerki taldeko bi aktorek solairua osorik ezagutzeko aukera eskaini ziguten: elkar-teentzako gela, ikastaro-eterako gela, gela balioanitz, kz gunea eta liburutegia. Tartean herriko dantzarien eta bertsolarien emanaldiak ere izan genituen; eta, bukatzeko, Ione Gorostazuren poesia errezitaldia. Mariano Arsuagaren bi koadro eta Susana Garciaren lore-artelan bat ere ikusgai daude solairu berrian.

Kultur solairuko eraberritze lanek guztira 318.195,99 euroko kostua izan dute. 2014an eta 2015ean 162.685,43 euro jaso dira diru-laguntzetatik (101.025 euro Eusko Jaurlaritzatik eta 61.658 euro Gipuzkoako Foru Aldunditik). Udalak bere aldetik 155.510,56 euro bideratu ditu proiektu honetara.

2. Udal liburuzainaren kontratazioa: Lanaldi erdiz arratsaldeetan udal liburutegian aritzeko egin da. Hautagaiei adin nagusikoak izatea, herrian erroldatuta egotea, EGA izatea eta gradu ikasketak (diplomatura edo lizentziatura) amaituta izatea eskatu zaie baldintza bezala. Arlo honetan izandako lan esperientzia ere baloratu zaie. 7 lagunek eman zuten izena eta handik osatu da lan-poltsa. Lanpostua Lierni Gartzia-arenak eskuratu du.



Gogoratu uztailean zehar liburutegia goizez bakarrik egongo dela irekita eta abuztuan itxita egongo dela, oporrak tarteko.

3. Herri langilearen kontratazioa: Lanaldi osoz maiatzaren erdialdean hasi eta azaroaren erdialdera arte herri-langile bezala aritzeko, berriz, bi izan dira izena eman duten herritarrek eta Unai Mendikutek eskuratu du lanpostua. Honetarako adin nagusikoa izatea, herrian erroldatuta egotea, euskaraz moldatzea, gidabaimena eta igeltseritzan esperientzia izatea eskatu zaie hautagaiei.

4. Hirugarren herri-langile baten kontratazioa: Lanaldi osoz uztailaren 18tik abuztuaren 31ra arte aritzeko hartu da, beste herri-langileen opor-egunak osatzeko eta herriko festetan lan egiteko. Hautagaiei adin nagusikoak izatea, herrian erroldatuta egotea, euskaraz moldatzea, gidabaimena eta desbrozadora erabiltzen jakitea eskatu zaie. 3 lagunek eman dute izena eta Ibon Garaiburuk lortu du lanpostua.



5. Ategi herriko taberna eta jatetxea: Bi proposamen jaso ziren udaletxean haren kudeaketa hartzeko, eta Maite Goikoetxea Zabaletaren proposamenak lortu zuen kontzesioa. 6 hilabeteko probaldiaren ondoren, 2 urtero berrituko zaio hitzarmena, hileko 200 euroko kanonarekin. Orain, Ategiko eraikinari erabilera berria eman zaionez, Larrialdi Plana egiten ari gara, eta erabilera lizentzia ere aldatuko zaio.

Ekainaren 17an ireki zituen ateak Ategiko beheko solairuan taberna eta jatetxe berriak. Gaztainondo Elkarteari lehen solairuan prestatu zaio txokoa.

HIRIGINTZA

6. Biltegi obra eta Ategiko teilatuaren konponketa-lanak: Gartziaarena-Saralegi eraikuntzak enpresari eman zaizkio bi lan hauek: alde batetik, udalak erosi berri duen biltegi berrian, lurra konpondu eta paretak barrutik zarpeatu batekin txukuntzeko; eta, bestetik, Ategiko itoginen arazoari konponbidea emate aldera, teilatuko teilak banan-banan garbitzeko.

7. Elduako plazan konponketa lanak: Herri langileak ari dira lan hauetan: hautsitako baldosak aldatu, kultur etxeko sarrera egokitu, parke berria jarri etab.

8. Zaraguetaneko urbanizazio plana: Hitzarmen bat adostu da etxe jabeekin. Etxe jabeek espaloia egiteko beharrezko metroak utziko dizkiote udalari, eta udalak etxe jabeei hurrengo HAPOaren modifikazioan eraikina 200 metro karratu handitzeko baimena aitortuko die. Udalak hitzartutakoa beteko ez balu, 31.000 euroko kalte-ordaina eman beharko lieke etxe jabeei. Espaloia eraikitzeo lanak irailean hasiko dira. Lau enpresari bidali zaizkie gonbidapenak, beren eskaintzak ekar ditzaten.

9. Ategiko eremua: Eraikitzen hasiko diren blokean 6 dira dagoeneko salduta dauden etxebizitzak eta 3 geratzen dira saltzeko. Hondeaketa-lanak uztailean zehar hasiko dira.

10. Plazaren itxiera: Maiezkonetik Zubizabaletarako bidea txukunduta eta aparkalekuak egokituta, plazako bizilagun, komertzio eta autobus gidariei piboteak igo eta jaisteko mandoak ematea besterik ez da falta plaza ixteko. Udal gobernuak plaza Salontzoekin batera ixtea erabaki du.



11. Herri bideak konpontzeko Aldundiaren laguntzak: Atera dira dagoeneko. Etxebizitzetara eta nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenetara doazen bideek dute lehentasuna laguntzak jasotzeko garaian. 2 milioi euroko partida du Aldundiak Gipuzkoa osorako. Udal gobernuak baditu zenbait puntu egin beharreko jotzen dituenak: Arriaga Txikitik Amirira artekoa, Zurikaindik Bordaberrirakoa, Juanluzenetik Iturberakoa eta Arratetik gorakoa. Azken honetarako %50eko laguntza onartu digute.

12. Balio katastralaren eguneratzea: Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko hiri eta landa ondasunen balio katastralak eguneratzeko erabakia hartu du; 2001ean egin zuen azken eguneratzea, eta aurreikuspenen arabera %28 igoko dira etxebizitzaren balio katastralak. Ekainaren 30era baino lehen zituen Aldundiak bidaltzekoak aldaketari buruzko jakinarazpenak etxeetara posta bidez. Balio katastral berriak 2017an jarriko dira indarrean.

Katastroa diputazioen mendean dagoen administrazio erregistroa da eta ondasun higiezinak momentuko merkatu-prezioaren arabera baloratzen ditu. Horretarako, ondasunen azalera, kokapena eta kalitatea hartzen ditu kontuan. Udalerrri batean dauden hiri edo landa ondasun higiezin guzti-guztiek - etxebizitzek nahiz lursailek - eragiten die.

Aldundiak orain zehaztuko ditu Gipuzkoako lurraldeko ondasun higiezinaren balio katastralak, eta udalek urriaren 30a baino lehen erabaki beharko dute balio horiei zein tipo ezarri. Aldundiak markatutako balio katastralari udalek zehaztutako tipoa biderkatuz ateratzen da herritarrek Ondasun Higiezinaren Gainerako Zergan (OHZ) edo kontribuzioan ordaindu beharreko zenbatekoa.

Berastegiko udalak, esate baterako, 0,1460an dauka gaur egun hiri ondasunen balio katastralaren gainerako tipoa eta 0,89an landa ondasunena. Herritarrek OHZn edo kontribuzioan igoserarik suma ez dezaten eta errekaudazioa orain artekoa bezalakoa izan dadin, 0,1141era jaitsi beharko luke hiri ondasunei ezarritako tipoa. Gure borondatea herritarrek OHZ edo kontribuzioagatik orain arte bezala ordaintzea izango da.

13. Obra baimenak edo lizentziak ez eskatzeagatik isunak: Obrak baimen edo lizentziarik eskatu gabe egiteko ohitura edo legea izan da urteetan gure herrian, baina pixkana ari gara denok, gainerako herri eta hirietan egiten den bezala, obrak egin aurreko baimenak eskatzera eta egin beharreko lanengatik ordaindu beharreko tasa (aurrekontu osoaren %4a) ordaintzera ohitzen.

Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruaren Legeak (2006) zehaztua dakar hirigintza arloko arau-hausteen aurrean udalek zein neurri hartu behar dituzten. Hiru motatako arau-hausteak aipatzen ditu: oso arinak, arinak eta larriak; eta arau-hausteengatik isunak 500 eta 5.000 euro artekoak izan litezke. Legea bere osotasunean aplikatu ala ez udalon esku dago. Gure udal gobernua arau-hausteen aurrean legea osorik betetzeko asmotan da.

INGURUMENA

14. Herri bueltaren txukunketa lanak: Bigarren urtez, Iñigo Atxukarrori eman zaio herriguneko eta herri bueltako belarrak mozteko eta garbitzeko lana. Urtean bitan egingo dituzte txukunketa lanak: udaberrian eta udazkenean; eta belarra galtzeko botika edo herbizida hirutan botako dute.

15. Argindarraren fakturazioa: Argindarraren hornikuntzari dagokionez, pasa den martxora arte Gipuzkoako Foru Aldundiak Iberdrolarekin hitzartutako kontratazio zentralaren barruan geunden. Akordio hori bi urterako sinatu zuten bi aldeek eta gehienez beste hiru urtez luza liteke. Kontratazio zentralak ezarritako baldintzak bete beharra daukagunez, baliteke Goiener Energia Berriztagarrien aldeko Kooperatibarekin 2018ra arte ezin fakturatu izatea, gure asmoak bestelakoak baziren ere.



16. Ura ur agentziarekin bilera: Maiatzaren 17an bildu zen alkatea bertako ordezkariekin. Eusko Jaurlaritzaren barruko erakundea da Ura, baina




uraren euskal agentzia
agencia vasca del agua

Oviedon dagoen Confederación Hidrográfica de Aguas erakundearen baimena behar du eragiteko. 3 milioi euro inguruko aurrekontua izaten du urtean Ura-k, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan inbertitzeko.

Bi gai garrantzitsu ditu udal gobernua Ura ur agentziarekin hitz egiteko. Alde batetik, Zelaiko erreka arazoak. Eurite handien garaian gainez egiten du eta inguruko zelai eta bideak ur azpian geratzen dira. Erreka dragatzeko edo garbitzeko aukerarik ba ote den aztertu nahi izan zen bileran, eta aukeraren bat egon litekeela azaldu zuten Ura-koek. Eta, beste aldetik, ur zikinak araztegia bideratzeko ezarri nahi den kolektorearen aspaldiko proiektua. Berez Ura-k berak finantziatu behar du kolektorearen obra, baina traba ugari ditu proiektuak; handiena Elduaingo zatian, malda handia dagoelako eta espazio gutxi kolektorea pasatzeko. Badira ur zikinaren auzian mahai gainean jar litezkeen beste aukera batzuk ere: araztegi naturalarena, esate baterako.

Udal gobernua gaia lantzen jarraitzeko asmoa du eta uztailaren 7rako bilera hitzartua du alkateak Iñigo Ansola ur agentziako zuzendariarekin.



17. Gipuzkoa eta Nafarroa lotzeko bide berdea: Iruñea eta Donostia lotuz oinezko eta bizikletentzako pasabide izango den bide berdearen proiektua geldiarazia du Gipuzkoako Foru Aldundiak, bi tokitan jabe pribatuekin dituen desadostasunen eraginez. Bide berdea bera proiektuaren bultzatzaile diren erakundeek (Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak Turismo Sailak) finantziatuko dute. Proiektua interesgarritzat jo du udal gobernua eta nolabait onuradun izan gaitzkeela ikusten dugu bide berdetik herrira arteko zatia edo lotunea guk eginez; gure kasuan, Plazaolatik Aintzergan zehar herrigunerakoa eta herrigunetik Mugatik barrena berriz Leizornerakoa. Gure lana bidea egokitzea eta seinaleak eta panel informatiboak jartzea izango da.

18. Kale-argi berriak hainbat puntutan: Kontsumo baxuko bonbilla zuriak jarri ditugu 46 farolatan. Farola berriak, berriz, Elizalde auzoan, Errekalderra (Arttoanera) bidean, aparkaleku berritik Alderdi Ederrera bidean, osasun zentroaren sarreran, Kakoneren ondoan, plazan eta udal eraikinean jarriko dira.

Eguzkialde auzoan ere farolak jartzeko eskaera egin dute hainbat herritarrek eta aukerak aztertzen ari da udal gobernua. Urdinarrain auzoan ere ari gara instalazioa aztertzen, farolak jartzeko aukerarik onena zein den jakiteko.

19. Plastiko zatiak auzokonpostagailuetan: Behin baino gehiagotan agertu dira herriko auzokonpostagailuetan haragi zatiak film moduko plastikoetan bilduta, izozkailutik atera bezala botata. Mesedez horrelakorik berriz ez egitea eskatzen dizuegu. Plastiko moduko material hori ez da konpostagarria; eta, beraz, ontzi arinetara, edukiontzi horira bota behar da.

LEHEN SEKTOREA, BASOGINTZA

20. Lehen sektorearen azterketa: Fraisoro nekazaritza eskolarekin bildu eta gero, gaur egun lehen sektoreak Berastegin bizi duen egoera aztertzeko beharrezko baliabideak, baita azterketa egiteko langilea ere, Fraisorotik bertatik jasoko ditugula adostu da. Azterketa irail, urri eta azaroan zehar egingo da. Galdetegi zehatza prestatuko da



herriko nekazari, abeltzain eta artzainei egiteko, sektorearen argazki ahalik eta zehatzena lortzeko asmoz. Dagoeneko jaso dugu diru-laguntza Tolomenditik honetarako.

21. Herri bideak erabiltzeagatiko tasa eta egurzaleei eskatutako fidantzak: Azken aldian zalantza eta kezka ugari sortu da zenbait herritarren artean baso-jabeek ordaindu beharreko tasaren eta egurzaleei jarritako fidantzen inguruan. Udal gobernua Berastegiko lurretan basoak dituzten jabeen tasa bat kobratzea erabaki du; alde batetik, baso sektoreak, beste herri batzuetan akaso ez, baina Berastegin daukan balioa daukalako; eta, bestetik, jarduera ekonomiko bat gehiago delako.

Tasa hori baso-jabeek soilketa (matarrasa) egiten duten kasuetan eta egurra materialetarako ateratzen badute ordaindu beharko dute; bakantzea (entresaca) egiten duten kasuetan eta egurra paper fabriketara eramateko baldin bada, ez dute tasarik ordaindu behar izango. Tasaren balioa ateratzen den egur kopuruaren arabera kalkulatu da: 0,95 euro estereoko edo metro kubikoko (m³-ko); ateraldiaren balio osoaren %5 inguru izango litzateke. Tasa honen bidez jasotako diru-kopurua oso-osorik datorren urtean herri bideak konpontzeko erabiliko du udal gobernua.

Soilketa izan edo bakantzea izan, pistak berdindatzen direnez, egurzaleei berdindatzen direnez, herri-bideak erabiltzeagatiko fidantza. Fidantza eskatzea erabaki izanak ere badu bere arrazoiak: bideak babestea; eta, erabilerarengatik hondatuz gero, lehen zeuden bezala utziko direla bermatzea. Momentuz, 20 euro m³-ko, balio horretan dauka fidantza udal gobernua. Hala ere, fidantza atera beharreko basotik errepidera arteko distantziaren arabera kalkulatzeko eta erregulatzeko aukerak aztertzen ari gara.

Gai honen inguruan edozein kezka edo zalantza izanez gero, jarri zuzenean udalarekin harremanetan.

22. Bigarren bilera baterako eskaera Aldundiko Baso Sailari: Herriko basoen gaineko eskumenak zertan dauden argitzeko eta Ipuliñoko mendia larre komunal bihurtzeko bidean aurrerapausoak ematen joateko bilduko da udal gobernua. Udalarenak diren bi pagadi handi badira Ipuliñoz behera bakanketa egin beharrean. Ea horri buruz ere zer dioten. Bigarren bilera Berastegin bertan izango da.



23. Herri bideen inbentarioko lehen atala bukatuta: Ariztun, Amiralde eta Urdinarraingo eremuetan dauden herri bideen inbentarioa osatua eta aurkeztua dute dagoeneko herriko arkitekto eta aparejadoreak, eta udalbatzak maiatzaren 30eko ohiko batzarrean eman zion hasierako onarpena.

Herri bideak banan-banan eta zehaztasun osoz aztertu dituzte teknikariek: non dauden, zein neurri dituzten, zein mugakide, zein egoeratan dauden etab. Web orrian ikusgai dago dokumentua eta udal bulegoetan ere bai. Lehen zonalde honek eragiten dien 100 lur jabe ingururi gutun bidez emango zaie prozesuaren berri; eta, hala irizten badiote, alegazioak jartzeko aukera izango dute, hilabeteko epean.

24. Artalekuko sartu-irtenen kontrola: Atakari katea eta kandadua jartzeko asmoa dugu. Erabiltzaileek baimena eskatu beharko dute udaletxean. Herritar ez diren erabiltzaileei tasa bat kobratzeko asmoa ere badu udal gobernua. Bestalde, HAPOa onartzeko garaian (2013) ez genuen Artaleku industria eremu izendatzeko baimenik jaso. Izendapen hori lortzen saiatuko gara berriz ere.

ESKUALDEKO eta LURRALDEKO BERRIAK

25. Eskualdeko enplegu plana: Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016ko enplegu planaren barruan, Lanbidek diru-laguntzak atera ditu langabetuentzat, tokian tokiko enpleguaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko apustua eginez. Bi modutan banatzen ditu diru-laguntzak: zuzenean erakunde publikoei emanez edo zeharka enpresa pribatuei emanez, haiek beren aldetik kontratazioak egin ditzaten. Azken bi urteetan, bigarren aukera honen alde egin da. Tolosaldearentzat 352.183 euroko laguntza dago eta kontratuak 2017rako amaituta egon beharko dute.

Prospekzioa egin ondoren edo enpresei proiektua aurkeztu ondoren, urri aldera Lehiberriko enplegu azokan enpresa kontratatzaileek zenbait konpromezu hartuko dituztela hitz emango dute: kontratatuko diren langile guztien %30ek oinarrizko errenta kobratzen aritu behar du, %40k emakumezkoa izan behar du eta %10ek 55 urtetik gorakoa. Langileko 12.500 euroko laguntza ematen zaio enpresari, honek gero langileari sei hilabeteko kontratua egitearen truke.

26. Landagipuzkoa+ izeneko diru-laguntzak: Izen hauxe hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak landa eremuko udalerriak laguntzeko prestatutako proiektuak. Datozen lau urteetan zehar 25 milioi euro banatuko ditu programa honen bidez. Bi ataletan banatu dituzte laguntzak: alde batetik, 2.500 biztanletik beherako herrietan, ekonomia



suspertzeko proiektu estrategikoak laguntzeko eta banda ultra azkarra lurralde osora hedatzeko. Movistar konpainia dagoeneko ari da, Aldundiarekin lotu duen kontzesioaren bidez, zuntz optikoaren sarea zabaltzen. Movistarrekoak iristen ez diren tokietara iritsi nahi du Aldundiak. 2019rako 48 udalerritako erdiguneetaraino eramanez nahi dute informazio eta komunikazio teknologien garapena. Eta, bestetik, Gipuzkoako landa eremu osoan baserri bideak konpontzeko eta argindar sarea berritzeko izango dira laguntza hauek.

Udal gobernua esku artean dituen proiektuak laguntzen deialdira aurkezteko asmotan da. Ikusi beharko da zer non egokitzen den ondoen.

MOTZEAN


27. Armairu berriak kultur solairuan: Bi bitrina erosi dira kultur solairurako: batean, liburutegiko liburu zahar eta hauskorrenak liburutegian bertan ikusgai jartzeko; eta bestea azken urteetan herriko kirolariek lortu dituzten garaikurrak gordetzeko. Azken hau elkarteentzako gelaren ondoan jarriko da.

28. Herriari eskainitako txokoa liburutegian: Berastegiri buruzko liburu, aldizkari, argazki eta bideoei aparteko txoko bat jarriko zaie liburutegian. Herritarrek herriari buruzko materiala ekartzeko eta mailegatzeko aukera izango dute.

29. Atariako harpidedunentzat kutxatxo: Udal gobernuak kutxatxo bat jarriko du plaza inguruan eta giltzak banatuko dizkie hala eskatzen duten harpidedunei eguneroko Ataria bertatik har dezaten. Atariak laster bazkietza kanpaina jarriko du abian Tolosaldeko herrietan.

30. Euskal Nortasun Agiria lortzeko edo berritzeko aukera: ENA elkartearen eskutik uztailaren 15ean, ostirala, 19,00tik aurrera Euskal Nortasun Agiria edo ENA eskuratzeko edo berritzeko aukera izango da udaletxean. Berastegiko udal gobernuak ofizialtasuna aitortzen dio agiriari eta udal funtzionamenduan, edozein tramite edo gestio egiterakoan, onartu egingo ditugu ENA txartelak.

31. Webgune berria: Ekainaren 1etik martxan da www.berastegi.eus udalaren webgune berria. Aldundiak kudeatzen duen IZFE programaren eredu erabili da web orria sortzeko. Bertan, besteak beste, udal antolamenduari, erabakiei eta ordenantzei buruzko informazioa, udal tramiteak online egiteko aukera, kultur eta kirol agendak eta iragarki taula kontsultatzeko aukera eta proposamenak egiteko aukera izango dute herritarrek.



32. Hileta zibilak arautzeko ordenantza: Orain arte halako ordenantzarik izan ez bada ere, beste herrietako ereduak aztertu eta Berastegirako ere hileta zibilak egin ahal izateko ordenantza bat prestatzeko asmoa du udal gobernuak.

33. UEMA eta Ur Kontsortzioak egin duten hitzarmena: Hemendik aurrera, udalek aldeko botoa emanaz gero, Ur Kontsortzioaren fakturak euskara hutsean iritsiko zaizkie herritarrei. Berastegiko udal gobernuak bat egin du proposamenarekin. Herritarren batek fakturak orain arte bezala euskaraz eta gazteleraz jaso nahi izanez gero, eskaera egin beharko dio Ur Kontsortzioari.

34. Galdutako objektuak: Udal bulegoetan baditugu galdutako zenbait objektu. Inork ezer galdu duela uste badu, pasa dadila bertatik.

35. Kontsumo taldea berriz ere abian: Uztailaren 21ean, osteguna, 19,00an egingo da bilera udaletxean, berriz ere herriko ekoizle eta kontsumitzaileen artean barazki eta baserriko produktuz betetako saskiak trukatzeko edo jarraitzeko. Interesik izanez gero, hurbildu zaitetzte.

GIZARTE ZERBITZUAK

36. Berdinbidean proiektua: Mintegi kolektiboak amaituta, herriko plangintza osatzen hasiko gara. Herritarrekin landu nahi dugun programa diseinatzen hasiko gara, herriko kolektibo ezberdinak eta adin ezberdinetako herritarrak gogoan izanda. Eragile eta elkarteekin ere bilduko gara. Eskola bera ere hezkidetzaren barruan generoen arteko berdintasuna lantzen ari da, eta elkarlanean ekimen ezberdinak aurrera eramaten ahaleginduko gara.



37. Eusko Jaurlaritzako Kontsumobidek antolatutako ikastaroak: Adinekoei zuzendutako ikastaro hauek dohainik izango dira eta irailaren 13tik 21era bitartean eskainiko dira Ategiko lehen solairuan. 3 ikastaro ezberdin izango dira: bata, merkataritza establezimenduetatik kanpoko salmenei buruz; bestea, mirari produktuei buruz; eta, azkena, aseguruari buruz.

KULTURA

38. Musika entsaiatzeko lekuaren eskaera: Herritarrez osatutako musika talde batek eskaera egin du entsaioetarako mediku etxe zaharra erabiltzeko eta udal gobernuak baiezkoarekin erantzun dio eskaerari. Oraindik zehaztu gabe dago mediku etxeari zein erabilera emango zaion. Bitartean herritarren erabilerarako izatea onetsi dugu.

39. San Isidro eguna: Urtero bezala maiatzaren 15ean, aurten igandearekin, ospatu genuen. Santua lagun eliz bidea egin ondoren, meza izan zen San Martin parrokian eta ondoren jubilatuen bazkaria udaletxean. 75 lagun bildu ziren bazkaltzera eta kantu eta dantza artean pasa genuen arratsaldea.

40. Salontzoak gainean: Badatoz 2016ko Salontzoak ere. Abuztuaren 5, 6, 7, 8, 9 eta 10ean ospatuko dira, eta ohiko ekitaldiez gain (herri afaria, herri kirolak, kuadrillen jokoak, pilotariak, bertsolariak, San Joan dantzak, Dantzerki...), berriak ere izango ditugu (Irrien Lagunak, Tio Teronen semeak...). Kartel lehiaketa, Leiho eta balkoi eta Lorategi lehiaketak martxan dira, eta Baratze lehiaketa geldirik momentuan, parte hartzaile kopuru txikia dela eta. Herri afarirako txartelak ere aurki jarriko dira salgai: helduen menua 22 euroan eta umeena 10 euroan.



